

Arlepeko III. BARRUTI KAPITULUA

Otoitza

Asteguna

Jesusen izen txit Santua (NO)

1Jn 2, 29 - 3,6; Jn 1, 29-34

★ Anai José Antonio Warletta García (1945) *Dos Hermanas*

☞ Anai Jesús Borràs Coca, *Bartzelona. Sant Gervasi*

☞ Manel Chao Serra jn., *Asoziatua, Bartzelona. Comtal*

☞ Anai Jesús Linares García, *Cambrils*

☞ Anai Jesús Morer Munt, *Cambrils*

☞ Anai Jesús Tó Tubau, *Bartzelona. Comtal*

III. Barruti Kapituluua Llirian. (1.go saioa)

OSTIRALA

3

♪ Sarrera Abestia

Adeste, fideles, laeti, triumphantes,
Venite, venite in Bethlehem:
Natum videte Regem Angelorum:

***Venite adoremus, venite adoremus
Venite adoremus Dominum.***

En grege relicto, humiles ad cunas,
vocatis pastores appropierant.
Et nos ovanti gradu festinamus.

Aeterni Parentis splendorem aeternum,
Velatum sub carne videbimus
Delum Infantem, pannis involutum.

Pro nobis egenum et foeno cubamtem,
Piis foveamus amplexibus:
Sic nos amantem quis nos redamaret?

👁️ BILBEAREN EDERTASUNA (Humberto Pegoraro)

Zenbat eta hari gehiago txirikordatu, hainbat
eta ederragoa da diseinua,
unibertsoa margotzen duten koloreen isla.
Konplexutasunak ematen baitio bilbeari bere
edertasuna.

Oihal berriak eroapen handia eskatzen du.
Adorea jarri behar zaio; izan ere, poza eta
sufimendua zure eskuen
indarrarekin, zure bihotzeko taupadarekin
behar dira brodatu.

Aniztasunaren bizileku izango diren tailerrak
inauguratu behar dira,

festatik eta topaketatik kanpo inor utziko ez
duten
itxaropen aterpeak, sorkuntza guneak.

Konpon ditzagun denborak uzten dizkigun
urratuak.
Ehundegian elkartu, eta batera ahalegintzeko
ordua da,
zapalgarri izan zaizkigun korapiloak askatuz.

Herriarekin batera ehundu ditzagun
sostengarri izango zaizkigun
justiziaren sareak, albaindu dezagun utopia
bere ametsen hariak. Ez dago zeregin
larriagorik.

ZU ZARA, JAUNA, - TU, SEÑOR ERES

1.- Zu za - ra, Jau - na, Ar - gi, Hai - ze, I - bai ta Su,
2.- Tú, Se - ñor e - res fue - go, bri - sa, luz y ca - lor;

bi - zi - tza - ren hel - mu - ga soi - la ta Sor - bu - ru.
fun - da - men - to de - nues - tras vi - das, da - nos tu'a - mor.

Aitaren nahiaren tapiza burutzeko,
Zuk erakutsi zenigun, Jesus,
eguneroko bizitzan sortzen diren hariekin,
nahiz eta landugabeak eta graziarik gabekoak
irudit, kreazioan dauden hariekin ehundu
behar direla;
egitasmoan kolore guztietako hariak nahastu
behar ditugula, ekimenean
gure izate osoa –arima, adimena eta bihotza–
konprometituz.
Horrela maitatzea, bakarrik poza eta onura.

Eta arima antzu bihurtzen bazaigu
edo gure gogoia bere zorrotasuna
galtzen badu,
edo bihotza okertzen
edo eldarniatzen bada,
bidean beste gauzak baitaude lehian,
–beste jauntxo batzuk gerra bizian, beraiei
dagozkien plazetan–
zuk esan zenigun, bizitzan zehar sarritan,
Berak pertsona aske eta pieza batekoak
bakarrik nahi dituela.
Horrela maitatzea, poza eta onura.



Jainkoa maitatzea da lehendabizikoa
eta funtsezkoena;
baina hau loratu eta hala izan dadin
–aire zabalean eta lau urtarotan–
beharrezko da
hurkoaren maitasuna,
maitatu behar dugun harengan,
nola edo hala,
gure burua maitatzen dugun bezala.

Horregatik, bere burua maitatzen ez dakienak,
ezin ditu bere antzeko direnak maitatu,
ezta Jainko Aitaren nahia bete ere.
Horrela maitatzea, poza eta onura.

Jainkoa maitatzea eta besteak maitatzea:
Ez dago besterik,
erlijioarekin edo erlijiorik gabe.
Hemen dago berri on guztia
galdetzen dutenentzat
edo isiltzen direnentzat –fariseuak, apaizak
eta jakintsuak edo herri xumea–;
hemen laburbiltzen eta distira egiten Biblia
osoa –Legea eta Profetak–
Elizak aldarrikatu ala ez.
Horrela maitatzea, poza eta onura.

Baina guk jarraitzen dugu ehuntzen,
beste hari eta erduekin,
zerbait ederra burutzen dugulakoan,
osatzen ari garen ametsen tapiza,
harrapatzen eta atxilotzen gaituzten sareak
direnean eta aske izaten uzten ez
gaituztenean.

San Joan Apostoluaren lehen gutuna 2,29-3,6

Senide maiteok: Hark Jainkoaren nahia egiten duela baldin badakizue, jakizue halaber Jainkoaren nahia egiten duen oro harengandik jaioa dela. Begira zer-nolako maitasuna izan digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena eman baitigu, eta izan ere hala gara. Horregatik, mundukoek ez gaituzte ezagutzen, Aita ere ez baitute ezagutu. Ene maiteok, dagoeneko Jainkoaren seme-alaba gara, baina oraindik ez da agertu izango garena. Badakigu, izango garen hori agertuko denean, Jainkoaren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu hura. Harengan esperantza hau duen orok garbitu egiten du bere burua, Jesus garbia den bezala. Bekatu egiten duen orok gaizki jokutzen du, bekatura gaiztakeria baita. Eta badakizue bekatuak kentzeko agertu zela Kristo, eta harengan ez da bekatuik. Harekin bat eginik dagoenak ez du gehiago bekatuik egiten. Bekatu egiten duenak hura ez duela ez ikusi, ez ezagutu, erakusten du.



Comentario

Dirigiéndose a los discípulos, Juan los exhorta a actuar en la justicia, es decir, a vivir permaneciendo en el amor de Dios. La justicia de Dios es el amor, porque Dios mismo es amor. El apóstol puede afirmar que “todo el que obra la justicia ha nacido de él”. El amor –el ágape– es la esencia de la vida cristiana, porque es la esencia misma de Dios. Quien vive en el amor viene de Dios, es hijo de Dios. En el prólogo del cuarto Evangelio se lee: “Pero a todos los que la recibieron les dio poder de hacerse hijos de Dios, a los que creen en su nombre; los cuales no nacieron de sangre, ni de deseo de carne, ni de deseo de hombre sino que nacieron de Dios” (Jn 1, 12-13). Los creyentes son hijos de Dios no de palabra sino en la realidad si, obviamente, permanecen vinculados a Jesús, el Hijo unigénito. Juan sabe bien que nos encontramos en el corazón del misterio de Dios y exhorta a contemplar su esencia: “Mirad qué amor nos ha tenido el Padre para llamarnos hijos de Dios, pues ¡lo somos!”. El amor de Dios, que salva del pecado y de la muerte, hace a los cristianos “incomprensibles” para la mentalidad de este mundo. En efecto, hay una ineludible dimensión de extrañeza del Evangelio a la mentalidad del mundo que requiere de los discípulos un testimonio heroico. De hecho, en la historia de la Iglesia nunca han faltado cristianos que han dado testimonio del heroísmo del amor hasta derramar su sangre. Pero llegará el tiempo en que la victoria del amor será evidente, se impondrá, y los cristianos, que ahora ven como en un espejo, verán el rostro del Señor “cara a cara”, como dice Pablo a los corintios (1 Cor 13,12).

Vincenzo PAGLIA, *La Palabra de Dios de cada día*, Sant'Egidio, p. 48-49

📖 ESKARIAK: ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO

Gaur, Jesusen etorreragatik pozik gaudelarik, Barruti Kapitulua adoretzu bizitzeko konpromisoa eskaintzen dizugu, eta gure beharrak aurkezten dizkizugu bedeinka ditzazun. Eskari bakoitzari erantzungo diogu: **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**

- Bihotza pozten ez zaien pertsona guztien alde, ez baitute uzten zu, Jainko hori, beren barruan jaiotzen. **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**
- Zure etorrerak gure desberdintasun eta zuzengabekeriak desegiten laguntzen digulako eta horretarako borroka egitera bultzatzen gaituelako **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**
- Gure Elizaren alde, zurekin bizitzearen esperientzia erakusten eta kutsatzen jakin dezan. **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**
- Anaia eta salletar guztiok, zuk argiturik, elkarrekin bereizmenean jardun dezagun III. Barruti Kapituluaaren ekitaldi honetan, salletar misioaren bidez munduarentzat argi izan gaitzen. **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**
- Gure elkarte eta familien alde, urte berri honetan elkarturik eta bakean bizi daitezen, Berri Ona hots egitearekin konprometiturik. **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**
- Anai Jose Antonio Warletta-ren alde, bere urtebetetze egunean, eta Jesus izen txit santua daramaten salletar guztien alde, euren onomastika ospatzen duten egunean. **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**
- Eta munduko gizon-emakume eta haur guztien alde, kontura daitezen benetako zoriona ez dagoela gauzak metatzean, Jainkoaren seme-alaba izateak ematen digun duintasunaren arabera jardutean baizik. **ESKERRIK ASKO, JESUS EMAN DIGUZULAKO.**

👉 GURE AITA

★ BARRUTI KAPITULUAAREN ALDE OTOITZA

Aita eta Ama zaren Jainko maite hori,
eskerrak ematen dizkizugu
gutako bakoitzari dei egin diguzulako
zure jarraitzaile izatera,
zure Elizaren partaide,
Salletar Familiaren baitan.

Barruti Elkartearen topaketa honen atarian,
zure eskuetan jartzen ditugu
gure bokazio- eta apostolu-ibilbidea,
gure ziurtasunak eta gure nekeak,
jakin dakigularik, uste sendoz, gure bizi-
egitasmoaren
etorkizuna eta handitasuna Zugan ditugula.

Lagun iezaguzu
La Salleko Joan Bautistaren ametsa
eguneratzen
gure bizitzaren erdigune izan dadin,
gure erlijioso-bizierak ibilbide berriak aurki
ditzan

zure aurpegiaren bila,
Misio berean elkarrekin,
xume eta behartsuenen artean.

Bidal iezaguzu, Jauna, zure Espiritua
gure itxaropena susta dezan
eta zugan dugun konfiantza sendotu.
Eta bedeinka gaitzazu,
munduaren erdian senidetasuna ehuntzen den
bilbea
izan gaitzen.

Argi itzazu Anai Kapitularrak,
zure Espirituaren indarrez
Jesusek eskaintzen dizkigun alaitasuna eta
itxaropena kutsatzeko gai izan daitezen.

Zure eskuetan jartzen dugu,
Arlep Barrutiko gure hirugarren Kapitulua.
Amen.